

ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2020ko otsailaren 5ean hartua, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Departamentu arduradun izendatzen duena klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru legearen aurreproiektuaren testua idazteko.

2019ko abenduaren 27an, Nafarroako Gobernuak 2020. urterako Arau Plana onetsi zuen, eta hartan, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru legearen proiektua sartu zuen.

Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko den testuaren neurriek anbiziotsuak izan behar dute arlo horretan izaniko larrialdi adierazpenari eta gizartearen eskariari koherentziaz erantzuteko, administrazio publikoen, sektore pribatuaren eta, oro har, herritarren konpromiso partekatua bultzatuta.

Gaur egun, ziurra da klima-aldaketak ondorioak dituela ingurumenean, ekonomian, osasunean, bai eta gizartean ere. Hori dela eta, klima-aldaketari aurre egiteari utzi gabe, haren ondorioak arintzeko eta energia-eredu berri bateranzko trantsizioa prestatzeko konpromisoari heldu behar zaio. Karbono gutxiko ekonomian oinarriturik, ereduak eskura dauden baliabideak eraginkortasun handiagoz aprobetxatzeko gaitasuna izan behar du, eta energia fosilen ordeza, pixkanaka, berriztagarriak erabiltzea planteatu. Horren guztiaren osagarri, energia aurreztu eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak behar dira, bai eta pobrezia energetikoari aurre egiteko ekintzak ere.

Trantsizio-testuinguru honetan kokaturik daude, batetik, arintze politikak, berotegi-efektuko gasen (BEG, aurrerantzean) isurketak murriztea eta karbono dioxidoa husteko gaitasuna areagotzea xede dutenak; eta bestetik, egokitzapen politikak, klima-aldaketak ingurumenean eta gizarte-sistemetan –ekonomian, osasunean, azpiegituretan eta ekipamenduetan– eragiten dituen arriskuak murrizteko xedea dutenak.

Nafarroako Gobernuak Estrategia eta Ekintza Plan bat onetsi zuen 2011ko urtarrilean klima-aldaketari aurre egiteko.

HCCN-KLINA Klima Aldaketaren Bide Orria 2018ko urtarrilaren 24an onetsi zen eta aurreko plangintza berrikustea eragin zuen, hainbat oinarri hartuta, hala nola politika sektorialen koordinazioa, lurralde eragileen arteko lankidetzak eta nafar gizartearen bilakaera, jasangarritasunarekiko konprometitua eta sentibera izan dadin.

KLINAK Nafarroan ingurumeneko estrategia integral eta zeharkakoa onetsi eta ezarri beharri erantzuten dio; era berean, Nafarroak klima-aldaketaren aurka hartutako konpromisoari helduta, eta nazioarteko hainbat helburu bere gain hartuta; besteak beste, Europar Batasunaren estrategia, Parisko Akordioak (COP21), NBEren Garapen Jasangarriko Helburuak eta Under2MOU ekimena. Halaber, trantsizio bat sustatuta, dela isurketa gutxiko ekonomiarantz, dela lurralde jasangarri eta erresilienterantz.

Helburu horiek gogoan hartuta, 2018ko ekainetik 2019ko ekainera, lan bateratua egin da, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak gidaturik, NASUVINSA enpresa publikoarekin elkarlanean; zehazki, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua idazteko oinarriak jarri dira.

Garatu diren ekintzen artean, tramiteak egin dira alde aurreko kontsulta publikoaz eta parte-hartzeaz, eta emaitza lehen lan-agiri bat izan da, Nafarroako Gobernuko gainerako

Departamentuek aberastua, eta gainera, enpresen, gizarte entitateen eta partikularren ekarpenak jaso dituen, bai online, bai lurraldean parte-hartze publikorako egin diren saioen bidez.

Gainera, 2019ko abenduaren 23an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzordeak adierazpen instituzional bat onetsi zuen, Klima Larrialdiaren Adierazpena bere egin zuena eta helburu hau ezarri zuena: *“Berotegi-efektuko gasak murrizten direla bermatzeko beharrezkoak diren konpromiso politikoak, arauak eta baliabideak lortzea, gehienez ere 2040a baino lehen – eta ahal izanez gero, 2035a baino lehen– zero balantze garbira iristeko, eta biodibertsitatearen galera geraraztea eta ekosistemak leheneratzea, hori baita natur sistema guztiak –gizakiaren barne– kolapsatzea ekiditeko dagoen erantzun bakarra”*.

Nafarroako Gobernuak, bestalde, 2019ko irailaren 24an, Klima Larrialdiaren aurreko Adierazpen Instituzional bat onetsi zuen eta, hartan, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko foru lege baten onespena aipatzen da.

Horrenbestez, egokia da orain arteko lanari segida ematea, Nafarroako Gobernuaren 2020. urteko Arau Planean ezarritako helburua lortze aldera, eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 132. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, eta egokia ere dagokiona zehaztea arau testuaren idazketari buruz, gaiak eskumena duten bi Departamentu baitira.

Batetik, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak eskumena dauka energia berriztagarrietan, energiaren aurrezpen eta eraginkortasunean, eta energiaren kudeaketan, eta bestetik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, berriz, klima-aldaketaren kontrako estrategian eta hartara egokitzeko ekimenetan, betiere deusetan galarazi gabe Nafarroako Gobernuko departamentu guztien inplikazioa bi gaitan.

Horiek horrela, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontseilariak zein Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko kontseilariak proposaturik,

ERABAKI DU

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua Departamentu arduradun izendatzea Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren testua idatz dezan eta behar diren tramiteak bete ditzan, testua Nafarroako Gobernura, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentura, helarazte aldera, eginkizun horiek Ekonomia Zirkularren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuari emanda, Departamentuko Idazkari Nagusi Teknikoarekin batera.
2. Aurreko puntuan xedatutakoa Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuarekin elkarlanean eginen da; bereziki, Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu estrategikoen Zuzendaritza Nagusiko Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuarekin eta Departamentuko Idazkari Nagusi Teknikariarekin elkarlanean.
3. Erabaki hau helaraztea Ekonomia Zirkularren eta Klima Aldaketaren Zerbitzura, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikora, Trantsizio Energetikoaren Zerbitzura eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikora.

Iruñean, bi mila eta hogeiko otsailaren 5ean.
NAFARROAKO GOBERNUKO
KONTSEILARI IDAZKARIA
Javier Remírez Apesteguía